

OSAKIDETZAN,

EUSKARAZ ESKAINIKO EZ DIZUTENEZ, ZUK ESKATU

Odol analisiak, historia klinikoa, traumatologoaren txostena... ez dituzu sekula euskaraz irakurriko, ez bada aurrez euskaraz jasotzea eskatu duzula. Eskariak eskaintza aupatuko duela uste du Aitor Montes Aramaioko medikuak. Iaz Arrasaten bezala, orain Oñatin egin dute osasun informazioa euskaraz eskatzeko kanpaina.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

“Osasun arreta euskaraz eskatzen badugu, orduan ikusiko dute horren beharra, eta hasiko dira eskaintzen. Zenbat eta gehiago eskatu, orduan eta gehiago eskainiko dute”, adierazi dio Aitor Montesei *Goiena* agerkariari. Uste horrekin, otsailaren 17an, Oñatin, Bidebarrietako erabilera anitzeko gelan eskaera bilketa egin dute.

Eskaera bilketa egiteak honakoa esan nahi du: Aitor Montes medikuak eta ekimeneko beste kideek dokumentazio klinikoa, ekografia, pediatria, ginekologia eta traumatologiako zerbitzuak eta erresonantziaren emaitzak euskaraz jasotzeko eskaera ereduak prestatu zituzten. Ordenagailuetan eskaera ereduak ireki eta herritarrek zein eskaera mota egin nahi zuten esatea besterik ez zuten.

Ekimeneko kideak eskaerak edo kezak Osakidetza helarazteaz arduraturiko dira, eta horretarako hizkuntza eskubideen urraketak azaleratzeko dauden bi bideak erabili dituzte. Batetik, Eusko Jaurlaritzako Elebide zerbitzura bidali dituzte, eta bestetik, Akuilari aplikazio



Aitor Montes eta Garazi Sagasta, Arrasateko Jai Zale tabernan herritarren eskaerak biltzen, 2015eko martxoan.

ARGAZKIA: AITOR MONTESEK UTZIA

estreinatu berria erabiliz Hizkuntz Eskubideen Behatokia.

Oñatiko ez da lehen saiakera. 2015eko martxoan Arrasaten egin zuten estreinakoa. Aitor Montes medikua eta Garazi Sagasta erizaina Arrasateko Euskal Herrian Euskarazkoekin elkartu ziren azken horiek kudeatzen duten Jai Zale tabernan. *Kexa poteoa* deitu zioten kanpainari, eta ostiraletako tabernaz tabernako prozesioa baliatuz, hainbat herritarrek eskaerak bete zituzten.

Ekinaldi hartan, arratsalde batean, 78 kexa eta iradokizun jaso zituzten. Halako saioek izan dezaketean eragina azpimarratu nahian, Montesei 2013an Elebiden jasotako kexa kopuruarekin alderatu du: osasun arloari lotutako 20 kexa. Aramaioko medikua baikorra da eta dio Arrasateko eta Oñatiko bilketa modua erabilita 2.000-3.000 eskaerara heltzeko aukera dagoela. Hasierako argumentaziora itzuliz, eskariak eskaintza behartuko duelakoan, gaur-gaurkoz Osakidetza ez baitu euskarazko osasun arretarik bermatzen. ■

ZERGATIK EZ GARA KEXATZEN?

Osasun arloa ez da hizkuntz eskubideak errespetarazten hasita euskal hiztunak borrokalarien ibiltzen diren eremua. Bi behintzat izan daitezke arrazoiak.

Batetik, osasun zentrorra gerturatutakoan pazienteak sarri uzten ditu bigarren mailan hizkuntz eskubideak, osasunez pattal dabilelako, zer daukan ez jakin eta kezkatuta dagoelako... nahikoa lan bere buruarekin. Bestetik, Osakidetzaaren egitura konplexuak ere ez du batere laguntzen hizkuntz eskubideak urratzen direnean kexa nola bideratu asmatzen, eta helburua lortzen.

Horregatik, Arrasateko eta Oñatiko ekimenen bultzatzaile Aitor Montesen iritziz, osasun langileek beraiek asko egin dezakete euskal hiztunen eskubideak errespetatzeko baliabideak eskaintzen.